



**GOBERNU JUNTAK 2023ko ekainaren 16an EGINDAKO  
EZ-OHIKO BILKURAKO AKTA**

**LEHENDAKARIA**

MAITE ANTON LENO (lehendakaria)

OÑATI

**ETORRITAKOAK**

BERNARDO KORTABARRIA  
IRAIZ LAZKANO  
GORKA ARTOLA  
IZARO ELORZA  
ANIK ZUBIZARRETA  
NAGORE IÑURRATEGI  
CRISTINA MARKINA

ANTZUOLA  
ELGETA  
BERGARA  
OÑATI  
OÑATI  
BERGARA  
BERGARA

**IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA**

Leire Ucin Soraluze

2023ko ekainaren 16an, 09:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

**1.- Aurreko Gobernu Juntako bilerako akta onartzea, hala badagokio.**

Juntakideak ados agertzen dira aurreko bilerako aktarekin.



**2.-60 litroko poltsa konpostagarrien hornidurari dagokion kontratua, Moheda & Rañal, S.L. enpresari esleitzea onartzea.**

Idazkariak azaltzen du prozedura ireki bitartez izapidetu dela poltsa konpostagarrien hornidurari dagokion kontratua, 20l, 40l 60l eta 120 litroko poltsak.

Gauza da desierto gelditu zela 3. lotea, 60 litroko poltsen kontratazioa, hain zuzen ere.

Sektore Publikoko Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 168. artikuluan xedatzen den lez, prozedura adostua izapidetu da, eta proposatzen da Moheda & Rañal enpresari esleitzea kontratua.

Hori horrela, puntua bozkan jartzen da eta hau da emaitza:

**Alde (8): Maite Anton, Iraitz Lazkano, Izaro Elorza, Gorka Artola, Anik Zubizarreta, Cristina Markina, Nagore Iñurrategi, Bernardo Kortabarria**

**Kontra: 0**

**Abstentzioa: 0**

**Ondorioz, gai ordeneko 2. puntua aho batez onartzen da.**

**3.- 2022ko likidaziotik eratorritako remanentetik kreditua gaitzea.**

Idazkari-kontuhartzaileak adierazten du 2023ko aurrekontua onartu ez zenez, 2022ko aurrekontuaren luzapena izepidetu zela. Hori dela eta, hainbat kostuei aurre egiteko ez dago nahiko kreditu, eta horretarako 2022ko likidaziotik eratorritako remanentearen zati bat gaitu behar da.

**Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:**

**Alde (8): Maite Anton, Iraitz Lazkano, Izaro Elorza, Gorka Artola, Anik Zubizarreta, Cristina Markina, Nagore Iñurrategi, Bernardo Kortabarria**

**Kontra: 0**

**Abstentzioa: 0**

**Ondorioz, gai ordeneko 3. puntua aho batez onartzen da.**



#### 4. 2022ko likidaziotik eratorritako remanentea udalei ez itzultzea onartzea.

Aurreko puntuan aipatutako kreditua gaitu ondoren, 115.391 Euro gelditzen dira. Idazkari-kontuhartzaileak proposatzen du ez dela kantitate esanguratsua eta proposatzen du ez itzultzea udalei.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (8): Maite Anton, Iraitz Lazkano, Izaro Elorza, Gorka Artola, Anik Zubizarreta, Cristina Markina, Nagore Iñurrategi, Bernardo Kortabarria

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

#### 5. Mankomunitateko langileen soldata %2,5 igotzea onartzea, atzeraeraginezko efektuekin 2023ko urtarrilaren 1etik.

2022.12.24an, BOEn **abenduaren 23ko 31/2022 Legea** argitaratu da, **2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa**.

Lege horrek III. Tituluko I. Kapituluan arautzen ditu sektore publikoaren zerbitzura dauden langile-gastuak, eta, zehazki, 19. artikuluan, 2023ko ekitaldirako ordainsarien igoeren mugen gaiari heldu dio, eta honako hau arautu du:

**“19. artikulua. Jarduera ekonomiko-aren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen gastuei dagokienez.**

**(...) Bi. 1. 2023. urtean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariek ezingo dute ehuneko 2,5eko igoera orokorra izan 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudene-kiko, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzintasunari dagokionez.**

El pasado 24.12.2022 se ha publicado en el BOE la **Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023**.

La referida Ley, regula en su Título III, Capítulo I, los gastos de personal al servicio del sector público, y en concreto en el artículo 19, aborda la cuestión de los límites de los incrementos retributivos para el ejercicio 2023, regulando lo siguiente:

**“Artículo 19. Bases y coordinación de la planificación general de la actividad económica en materia de gastos de personal al servicio del sector público.**  
**(...) Dos. 1. En el año 2023, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2,5 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2022, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.**



**Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:**

**Alde (8):** Maite Anton, Iraitz Lazkano, Izaro Elorza, Gorka Artola, Anik Zubizarreta, Cristina Markina, Nagore Iñurrategi, Bernardo Kortabarria

**Kontra: 0**

**Abstentzioa: 0**

**Beraz, aho batez onartzen dute 5. puntua.**

## **6. 2016ko Lanpostuen Zerrenda eta plantilla organikoaren onarpenari dagokion ofiziozko berrikuspena izapidetzea onartzea.**

Lehendakariak hartzen du hitza:

Azaltzen du aurreko Gobernu Juntara eraman zela puntu hau baino bertan behera gelditu zela, oposizioak prozesu honi dagokion aholkularitza juridikoa externalizatzea eskatu zuelako.

Behin kanpo aholkulari horren txostena esku artean izanda, honako azalpen hauek ematen ematen ditu idazkariak txosten horretan jasotzen denari buruz:

Interesdunak honako espedienteak ofizioz berrikustea eskatu zuten:

1. 2015eko otsailaren 27ko Juntan hartutako akordioa lanpostu zerrenda aldatzen duena.
2. 2015eko abenduaren 15eko 2.7 puntua arrazionalizatzeko programa onartzen duena eta honen ondorioz 2016ko urtarrilaren 12ko gobernu juntako 2.1 puntuan agertzen den hirugarren akordioa: "Pertsonal Batzordeak proposatutako 2016. urterako Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda ere Aurrekontuarekin batera onartzea."
3. 2018ko azaroaren 11an 2.4/2.5 puntuan agertzen den akordioa: "Pertsonal Batzordeak proposatutako 2019. urterako Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda ere Aurrekontuarekin batera onartzea."

Lehenik eta behin txosten horretan azpimarratzen da interesdunaren legitimazioa eta interesa objektiboa izan behar dela, hots, helburua ezin dela izan kalteak sortzea beste ezer konpondu gabe. Horregatik, aholkulari honek 2016ko urtarileko Juntan onartutako Plantilla organikoa eta lanpostuen zerrendari dagokion ofiziozko

Nafarroa Etorbidea, 17 – 20500 Arrasate (Gipuzkoa)



berrikuspena aurrera eramatea proposatzen du, legitimazioa izan dezakelako. Gainontzekoetan ez du ikusten interes obehjtiborik horrelako ez-ohiko prozesu bat irekitzeko.

Beraz, proposatzen da 2016ko Lanpostuen Zerrenda eta palntilla organikoaren onarpenari dagokion ofiziozko berrikuspena izapidetzea.

**Hori horrela, puntua bozkan jartzen da, eta hau da emaitza:**

**Alde (8):** Maite Anton, Iraitz Lazkano, Iزارo Elorza, Gorka Artola, Anik Zubizarreta, Cristina Markina, Nagore Iñurrategi, Bernardo Kortabarria

**Kontra: 0**

**Abstentzioa: 0**

**Beraz, honako hau onartzen dute aho batez:**

**LEHENA.** 2016ko Lanpostuen Zerrenda eta plantilla organikoaren onarpenari dagokion ofiziozko berrikuspena izapidetzen hastea onartzea.

**BIGARRENA.** Interesdunei erabakia jakinaraztea, eta 15 eguneko alegazio epea eskaintzea.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 09:52etan bukatutzat ematen da bilkura.

Arrasaten, 2023ko ekainaren 16an.

**LEHENDAKARIA**

**IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA**

